

KUBA KURUTZEAN

"Kuba: Amerikako lenengo Estadu komunista". Auxe zan lengoan leidu nabon periodikoaren asierea. Eta beratrroago, letra txikiagoaz, beste auxe ekarren: "Bakeuren Lenin-saria Kastrorentzat". Urren-go orrian: "Kontuz ibilteko diñotso Kastrok Kennedy lendakariari New York eta Washington beste Hiroshina eta Nagasaki baizuk biurtuta ikusi nai ez badauz". Eta onelako naikoa badakar aspaldi onetan.

Zer gertatzen yakoa ba "bizardunari"? Jumm.! Alakoa dago yankien kontra, bera bota gurarik sartu ziran egun aretatik! Esturea be bear bada igaroko eban, baña gaur astoputza baño arroago eginda dago. Alejandro Nagusia, Anibal edo Napoleon ez-tanik eztau pentsatzen beintzat. Bere garraziak eta bere arrantzak iñoiz baño aundiagoak eta arroagoak dira. "Betoz—diño—amerikanuok eta neuk erakutsiko deutsiet nor nazen".

Egon be txarto dago oraingoan Kuba. Denpora gitxi dala Yon Kepak Kuba Kalbario bidean aurkitzen zala idasten eban. Baña gaur geiago esan bear dogu: kurutzean josita dagoala. Kastro eta Rusiaren artean. Jentea gosez albo-alboka eta armaz agiñetaraño beteta. Ogia kendu eta armak eskeñi, kontu eskasa. Armak gosea kendu baño ekarri geiagotan egin eidabe eta gaur be bai kontziru.

Kuban komunismoa bete-betea sartu

ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

VIII URTEA - N.º 79

BAGILLA (6) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

Yaku eta koko au kentzea beti izan da galka.

Eta Eleizea? Txarto. Komunismoa eta Eleizea beti izan dira etsaiak, eta ezin bizi biak etxe baten, ezin jan katillo batetik. Uste danez, etorri bear dau zeozerk Eleizaren ganera. Len be iñoiz esan dau Raullek: "Laster esango deutsague abade eta praille orreeri nora joan bear daben".

Esan dabeena egia bada, eundaka abade eta praille egon dira kartzeletan. Pare bat obispo be bai. Arteaga Kardenalak anka egin eban enbajada batera. Radio telebisiño eta periodikoak jaurtialak botaten dabez euren kontra, eta, uste da, Eleizeak txarto geratu bear dabela oraingoan.

Praile euskaldun asko daukagu an. Aundia izan zan gure bildurra lenengo orduetan, ez genkian ezer eta. Baña abisatu deustuenez, euskaldun guztiak ondo dagoz eta ezta egon iñor kartzelan. Iru edo lau ondo zainduta eidagoz, baña besterik ezer be ez.

Negargarria benetan Kubaren egoera au. Eta Kuba bakarrrik balitz. Sarritan pentsa dot su-bateoren bat bear ete dogun. Dana dala Jaungoikoaren eskuetan gagoz eta datorrela datorrena Jaunak zainduko gaitu. Bitartean egin daigun danok otoitz Kuba errukarriagaitik eta munduko bakeagaitik.

Antonio Zubizarreta





GURE "ANAITASUNAREN" EUSKEREAA

Bost edo sei karta eldu iataz, gure "Anaitasunaren" euskereatzaz diarduenak. Batzuk, egia esateko, biotz eta asmo onez beteak; beste batzuk bear bada amorru edo alako ikusi ezin gorritxo jantzita. Ezkerrik asko lenengoeri, euren kezkek asmo onak eraginda agertu deustezelako; besteei berbatxo bi:

Bildurtu be egin nintzan lenengoan karta orreekin. Aita Imanoleri agertu neuntzazan neure bildur eta estureak, eta esan eustan metro erdiko pilloa eukala olako kartatan.

Karta oneen atxekiak, geienbat beintzat, onek dira: euskera errexegia egiten dogula eta erderazko berba larregi dabilgula.

Gauza onek sarritan pentsatu eta endo ausnartu doguz. Bein baño geiagotan atera izan doguz geure autuetan, eta batzuetan batzuekaz eta beste batzuetan beste batzuekaz, eta gure errazoiak ateratean ontzat emon dabez.

Gaur orri onetan zeozer esan gura neunke:

1.—EUSKERA ERREXEGIA. Egia da, baño asmoz. Sarritan beste berbea miñaren puntan dindilizka eukiarren irentsi egiten dogu. Zergaitik? Gure euskerea al danik eta geienak leidutea eta aitutea gura dogulako. Baña orregaitik saikoaren beste zulotik urten barik. Ori bai. Guk gura dogun euskerea da: ez garbiegia, ez zikiñegia, erdian gura dogu ibilli. Enoia onegaz euskera ederreko errebista orreen kontra. Orixe ez ba, milla txalo eureri. Baña begira:

Gure Euskalerrian jente asko dago. Batzuk euskera goitik bera dakienak; beste batzuk, geienak, juxtu eta estu dabiltzanak. Errebista orreek ondo dagoz lenengoentzat, baña ez bestientzat. Geienak eztabe ezer aitzen, edo, beintzat, kizitonak egin bear izaten dabez zeozer garbi aterateko. Eta zer gertatzen da? Arazo ori ez artzearren dana isten dabela. Gure euskerea muga larri baten aurkitzen da gaur eguncan, eta gaur egin geinkeen gauzarik onena auxe da: leidu edo irakurri dagiela beintzat zeozer euskaldun orreek betiko baztertu ez dagien euren euskerea. Eta orri zelan lortu? Euskerea emonda. Baña eurek auzo leikien euskerea. Ata orixe da gure Anaitasunak gura dabena: leidu daiela zeozer beintzat. Eta baten batek nai badau euskera obea, badau ugari.

Nire ustez, errebista biak bear dira: euskera errexekoak eta euskera garbiagokoak. Eta ezta uste bigarrenak lenengoak baño bearrezkoagok diranik. Biak dira bear-bearrezkoak.

2.—ERDERAZKO BERBAK. Ez dot nste aintbesteraño eltzen garianik. Len saso baten bear bada, baña ez gaur. Ondo neurtuta doaz berba orreek.

Auxe esan gura neuntsuen eta ara or ba. Baten batek beste era batera pentsatzen badau eta errozi gogorragorik badauko esan daiztala, mesedez. Beti artzen dodaz pozik kezka orreek eta. Argi egiten da. Batez bere errebistearen maitasunak eraginda badatoz. Eta beste orreek, pentsa dagiela: laureun edo bosteun euskaldun on eukiarren, beste danak aldeten badabe, euskerea astuten badabe, zer?


Pozik artzen dodaz ba zeuen kartak, eta baten batek zeozer esan gura badeust ara emen noa zuzendu:

P. Antonio Zubizarreta.

PP. Franciscanos IRALABARRI. - Bilbo.

Milla esker errebista oneri ainbat laguntzan deutseen suskritoereri. Asko dira iru eta lau berder geiago ordaindu dabenak. Eskerrik asko.





Euskaldunak osterera Amerikara doaz

ALEMANIARA BIARREAN

JATEKOA, ETXEA, DIRUA

Txarto jaten ei da Alemanian. Zergaitik?

Nazio bakotzak bere gurariak daukoz eta bere gustoak jatekoetan. Eta, antza, angoak eta emekoak eztira bardiñak. Orregaitik, Españiko emigranteeri ango janariak barre gitxi eragiten deutse. Nire ustez, lenagoko atxakia izando da au, gero, denporea-gaz, orretan bere oitu egiten da-ta.

Bizi-lekua oso eskaxa eida ta surreko kostipauak sarriak.

"Diruagaitik izango ez balitz..." Egia esan, dirua da Alemaniko españarren poz zurtza. Erreza da —euren esatez— illero bi edo iru milla peseta batutea. Batzuk atzerriko urtea amaitu orduko etxea ta bigarren eskuko autoa erosi ei dabez. Ori emen gatx izango litzake; baiña an be ezta ori danan zoria.

NORK LAGUNDUKO DEUST?: BAKARTASUNA

Beste erri bat, beste etxe bat, beste biarleku bat, eta beste berbeta bat. Berbetearren ezbardintasuna da, batez be, angoen bakartasunaren orma zabalena. Edo firma bat bota bear dalako, edo atxaki bat emon,

edo gauzaren bat zuzendu, berbak bear dira danatarako, eta angoagaz oso txarto ei dabiltz. Orixe da ango bakartasunaren zio garratza. Askok, urtea eginda gero, eztabe besterik ezaututen: eskapareteak, dantza-lekuak eta andrak edo neskatillak... dantza-lekuak eta andrak. Batzuk gañera, ezkonduak dira, emaztea ta seme-alabak emen itxi dabezenak, eta onen bakartasuna negargarriagoa da oindiño: ezin dira "txoritah" ibilli...

Abadeen aldetik aaztuak dira lar. Bertako españar abadeak oso gitxi dira ta ezin dabez emigrante guztien eskariak eta anima bearrak entzun. Angoak, ba, benetako bakartasuna dabe.

AZKENA

Auxe da ba, berba laburretan, Alemaniako biargiñen bizierea. Izan leiteke zuetariko batzuk bertara joetako gogoia izatea. Baiña, zuentzat izan dira ba nire berbak: ezautu nora joaten zareen, zelan ibilko zareen, ze gatx eukiko dozuezan, zuen animak ze etsai izango dabezan, eta gero... joan bakean, gura ba-dozue. Jaungoikoren bidea dozue.

S. P.'tar PELLO-MARI'k

Euskaldun frantzes arraintzaleak

Milla berreun arraintzale

Neguan arrastan, udan atunetan

Gobernuaren kredituagaz egiñiko barku ederrak

Indar aundiko kofradia

Gerorako asmoak

Erlegiñoaren praktikamentu eskasa

Euskerea, geroago gitxiago.

Aita Imanol Berriatua-k

Baiona-ko portuan nago kargako barku baten. Paper pastea artuko dogu emen, eta etzi-edo urtengo dogu Irlanda-rantz. Atzo goizean, eskapadatxu bat egin neban Donibane Lohitzune-ra (San Juan de Luz-era). Artez artez joan nintzan portura, eta antxe aurkitu nituan neure Dakar-reko lagunak: patroiak, mariñelak eta Itxas Apostoladuko kapellaua. Momentu gozoak igaro genduzan alkarregaz. Gero, eguerditan, kapellauaren etxera joan nintzan bazkaltzera. Blok egon giñean bakarrik: Aita Idiartegaray eta neu. Era ona, Donibane-ko arraintzaleen gaiñean berari preguntatxu batzuk egiteko.

—Zenbat dira Donibane-ko arraintzaleak?

—Milla ta berreun gitxi gorabehera. Euretarike geienak Ziburun ta Zokoa-n bizi dira, portuaren beste mandan. Donibane-n bertan, ia danak legortarrak dira.

—Kanpotarrak ba-dago arraintzaleen artean?

—Euskaldunak ez direanak, total gitxi. Ba-dagoz bretañar batzuk. Ogetamar-edo. Ta danak edadekoak. Aspalditik bertan bizi direanak. Euskaldun espāñolak barriz, asko.

—Arrastako barkurik ba-daukozue?

—Bai. Baiña arrastan urte guztian ez dira ibilten. Neguan arrastan, udan atunetan. Aurten amairu barku ibilli dira aolan. Eta datorren neguan ogei-edo ibilliko dira. Frantzia-n libre da arraintza modu batetik bestera pasatzea. Gobernuak ez dau ezelako eragozpenik ipinten. Bretaiña-n ia untzi guztiak ibilten dira arrastan neguan. Lau-bost gizoneko barkutxuak-bere bai. Doni-

bane-n igaztik asi dira batzuk olan. Baiña ez dot uste ori izango danik, barku aundietzako beintzat, negua salvetako soluziirik onena.

—Zenbat kostetan jatzue atunzale barku bat?

—Artez esango deusut. Olezko bat, eta aundiegia, ez txikiegia, arraintzarako tresna guztiakaz, lau milloi terdi, hosi milio peseta kostetan jaku.

—Bermeo-ko barkuen aldean, askoz ohean dira zuenak. Komodidade geiago dauko eta gizonaren diñidadeari geiago begiratzen deustoe. Zer? Olako barkuak egiten gubernuak obligetan zaitue ala?

—Ez. Ez gaitu obligetan. Geuk geure barkuak egiten doguz olako barkuak, geure itxas soko etxeak izan bear dabe-ta. Baiña gubernuak asko lagunduten deusku.

—Zelako laguntziñoa emoten deustue barkuak?

—Guztiz aundia. Zuek, euskaldun espāñolak, ez siñestuteko modukoa. Barku osoa kostetan dan besteko kreditua emoten deusku. Bai, entzuten dozuna. Barku osoak baliu dauan besteko kreditua. Interes baxuagaz gaiñera. Lau terdiko interesa, eta hamar amabost urtean pagetako plazua. Ba-da gero laguntziñoa. Gobernuak konfiantza guztiagaz lagunduten deusku, euskaldun arraintzalea langille fiña dalako eta Donibane-ko kofradia, kasurik txarreanean, bere indar eta bere diruagaz erantzungo daualako.

—Aurrerantzean-bere, joango ete dira Dakar aldera neguan Donibane-ko arraintzaleak?

—Oraingo kondizioñetan ez dot uste. Gastuak, aundiak dira. Dakar-retik arraintzaleak

okira eltzeko, gasoil asko erre bear da. Arraintzale portua, Dakar-ren barik, Monrovia-n naiz Abidjan-en balego, orduan beste gauza bat izango litzake. Baiña alan ta guzti-bere, Afrika tropikalera joateko, kongeladore barkuak bear dira.

—Zelako kongeladoreak?

—Esango deutsut. Guretzako soluziñorik onena, kongeladore aundi bi eukitea izango litzake. Kongeladore transporte bi, arraintzale guztien onerako kofradiak erositakoak. Atunzale barkuak ondo dagoz, orain dagozan lez, euren tamañu ta edur sistemeagaz. Kongeladoreak atunzaleakaz batera joango litzakez Afrika-ra, eta euren alboan ibilliko lirake beti, oilloa txitakaz ibiltan dan antzera. Kongeladore bi izan bearke leukee derrigorrean, batak Afrika-tik bertora arraiña igaroteko, bestea bertan geratuten dan bitartean. Olan diru askoz geiago irabaziko leukee arraintzaleak, eta bertoko atun fabrikak urte guztian ibilliko litzakez lanean. Auxe da guretzako soluziñorik onena. Guk, geure kristiñau sindikatu edo kofradiaren bitartez ebazti gura doguz gure portuko problema



Barko onak eta aundiak prantzesak

eskasa. Eunek ogetamar-edo komulgetan dira urtean bein, eta domeketan euneko amabost bat bakarrik etorten dira mezetara. Aspaldion asko obatu da euren kristiñautasuna. Len, antiklerikalismo aundia egoan euren artean. Orain oster, portuan Itxas Apostoladuko abade bat lanean asi danetik, erlegiñorako bidea asko zabaldu da, eta esperantzak onak dira.

—Eta euskerea? Zelan dago euskerea arraintzaleen artean?

—Ez ondo, zoritxarrez. Jakin, danak dakie. Edadekoak —ogetamar urterik gorakoak— geienetan euskeraz egiten dabe. Gazteak berriz, frantseserantz daukoe jokera aundia. Eta ba-dagoz banaka batzuk, donibandarrak izanarren, euskeraz ez dakienak berbarik be. Orretan, bermeotarrak milla bidar obeto zagoze.

Beste gauza askoren gaiñean-bere berba egin genduan. Bazkalostean, erriko arrain fabrikak ikusten joan nintzan. Gauza asko ikusi ta ikasi neban. Ordu zoragarriak igarotituan. Aita Idiartegaray-ri milla esker emon neutsazan. Eta Donibane Lohitzuneko erriari agur eginda gero, Baionara bihurtu nintzan.

Bokale (Baiona), 1961.

EUSKALDUN KRISTIÑAUA

Maiatzeko lenengo domekan ospatu da mundu guztian

ITXAS APOSTOLADUAREN EGUNA

Ba-dakizu zer dan Apostoladu ori?

Egiten dozu ezer itxas gizonen al'le?

Kristo-rentzat irabazi bear dozuz itxastar eta arraintzale guztiak

guztiak, arraintzale guztien onerako eta kapitalismoari lekuri ez emoteko. Orrexez gaitik gagoz kongeladore txikien kontra, bide ori armadore batzun onerako bakarrik izango litzake-ta.

—Orain beste gauza bat. Kristiñau alde-rik, zelakoak dira Donibane-ko arraintzaleak?

—Danak daukoe kristiñau mentalidadea. Erlegiñoaren praktikamentua berriz, total

Eskontzako ordurik onena noiz?

ANDRIA GIZONAREN ALABA?

Alan emoten dabe batzuetan. Noiz edo noiz ikusten dira andra gaztetxuek, ia neskatillak oraindik, ogei edo berrogei urte zarragoako gizonarekin. Onelako andrazkuen artian "andra-kumeak" izaten dira batsuetan; ezkontuta be umeen bizitza xamurra jarrgai nai dabenak.

Onetariko emazteeri urrundik igerten jakue: soñekuak iru mille kolorekuak gitxienez, berbetia ume mikatuena, eta etxetik urten dakuan bere gizonaren eskutik txintxilika, txepetzak lez saltoka. Berez be umeak dira eta aiañ bizerdun senarraren albuaz zer esanik be ez, besoetako umetzat artu leitekez. Gizona zer danik be ez dakie: bigarren aita, lenengua baño gazteagoa bai, baña aita dala ta dagoz eta eurak bere alabatxu maiteenak. Ezkontza bera be mundu onetako olgetarik alaienezat daukee. Txori buru orretan egundo ez da ganorako gauza bat sartu eta gero, berrogei urtetara orduko, umeikeririk aundiena egin dabela aitortzen dabe eta baita damutu be; berandu orain. Ze negargarriak emetik aurrerako urtiak! Lo egozan artian ezkondu eta esnatzen diranian, damutu. Eta ez uste orrelako emazteak banakak diranik.

Baña ezin leike ezkondu norberak nai dabenarekin edo zer? Urtietan alde aundia euki arren ezin leike andra-gizonak ondo alkurtuta bizi? Ez diñot nik ezetzik. Ikusten doguz orrelakuak be, bai Jaunari eskerak, baña orretarako zer bear da? Naiz gazteak izan, naiz zarrak, gauza bat da bear-bearrezkua andra-gizonen artian: egizko alkar maitasun bizi-bizia, ez daitela batak batera eta bestiak bestera jo; esate baterako, korputz bat, buru bat eta biotz bat izan daitela erabaki danetan. Onela ez dago arriskurik zar-gaztien artian egiten diran ezkontzeetan. Beste danak gañerazkuak dira, baña au bear-bearrezkua, derriorezkua eta gatxa.

ELEIZAK DIÑONA?

Gure Eleiza Amaren gogo bizi-bizia auzeda: Ezkontzara orduko ezkongai dan-da-

nak nagusitasunaren jabe izan daitenez. Ez dau nai ikusi, kalte-garrizkua da eta andra-gizonen artian, norberaren eta berrarteke egin bearraren barririk ez daukanik eta bete ezin deitekeanik, esate berrirako, umerik. Bear-bearrezko edade barrina 16 urte gizezkuentzat eta 14 andrazkuentzat ipinten dau. Urte oneen azpitik egiten diran ezkontzak indar bakoak galditzen dira, eta bein bete ezkerero ez daitipinten, Eleizak, trabarik. Alan da gure be, Eleizak, gure Ama dan ezkerero, toki bekoitzean bertako oitura onak zaindu eta gordeteko agintzen deuzku.

OSAGILLEAK

Osagilleak diñuen ez dira naiko Eleizak agintzen dituan urteak. Sasoi ortan gazteak ez dagoz oraindiño ondo eginda beste urte bi gitxienez bear ditue bakiak eta nasai ibilteko, 23 eta 21'tik gora.

Codigo Civil'ak diño: "14 urtetik beerrak gizezkueri eta 12'tik beerrako andrazkueri ezkontza debekatzen jakue".

ARRIOLA



Ullejarroaren azpian txepetx burua

Dantzzea

LEGEZKOA ALA EZ?

Arlo beroa ta dotorea benetan auxe! Baiña nik emen enkuesta baten artu dotazan arrazoï batzuk danen agirian jarri baiño ez dot egingo.

1. Dantzzea, *berez*, ezta txarra edo pekatua; bere musika ta mobimentuakaz gorputzak sentitzen dauan atsegin berezia be ezta pekatua. Enkuesta orren erantzumetatik atara leike dantzzea zikinduten dabenaioak onexek dirala: dantza-giroa edo ambientea eta dantzarien *asmo zatarrak*. Onegaitik, dantzzea ona izan-arren berez, askotan *gure asmo* gaiztoak txartuten dabe. Gure asmoa! Orixe salba bear da beti garbi. Baiña

2. Dantzzea berez pekatua ez izan arren ezin leike esan ori dantza guztietzaz. Dantza guztiak dauke bere sustraien aragihixurea ta pekatu-zalea. Eta, beraz, *kontuz* ibilli bear gara beti gure dantzetan. Egia esan, dantza batzuk beste batzuk baiño geiago biztuten dabe gure aragikeria, eta orregaitik

3. *Europako-dantzak* dira garbienak, au dia, European jaio edo sortu diranak: vals, polka, mazurca... Dantza oneek alkar-errimuz ezkaza beardabe. Ondo esan leike, ba, Europako-dantza oneek ez dirala pekatuare bide aztunak, momentu guztietan soñuaren kargu aundia euki bear dalako batetik eta bestetik kostunbriak kalte-bakoak egin dauazalako. Ez pentseu, barriz, sarri pekatu-sorian jarten ez gaituenik, batez be grina txarrak eraginda dantzaten gabiltzanean.

4. Deitutako "Dantza-baltzak" eta "Ego-Amerikakoak" nabarmenkeri utsa baiño ez dabe dario.

Ego-Amerikan jaiorikoak: rumba, karioka, boyero, bayon, samba, raspa, boogie-wogie, cha-cha-cha... eta besteak, oneek, dantzaren egiteko, une askotan errimu bizia ta

osoa eskatuten dabe eta, orregaitik, zietz lotsagabeak dira. Barren-barrenetik dagoz aragikeriz beteta, dantzatzean artu bear diran posturekgaitik. Dantza orrek grina txarrak itzartuteko egiñak dagoz bakarrik. Joko danganifuak!


Orreek baiño garbiagoak dira "dantza baltzak": slow, tango, one-step, boston, charleston... Baiña, etenbako alkar-errimuan dantzatu bear dira eta, beraz, dantza zantarrenak ez izan-arren, pekatu aztun bidean ipinten gaitue beti, berez lotsagabeko mobimentuak daroazelako. Gitxitan dantzatu leikez.

5. ERABAKI BATZUK


Bein da bein, dantzzea ezta *berez* okerra, gizonetzko edo andrazko bategaz jira-bira pozkari batzuk botatzeak ez dauko ezer-eta Baiña, joku oneri, beste askori lez, bere ontasuna ala okertasuna gauza askotatik yatorko: gizonak edo emakumeak daroetzan asmoakgaitik, jantzietatik, sarri egiten diran gangarkeri zitaletatik, eta... Dantza-toki baten lizunkeria agertuten da edonun; pekatua an beti dabil irikiten... Orregaitik, gu gitxitan joan bear gara leku orretara, eta joan baiño ariñago, gure asmoak guztiz garbitu bear doguz.

Egia da Ipar-Amerikan eta beste lekutatan Azion-Katolikako salak atonduten di-

8'garren orrira



Euskal-dantzak danak dira garbiak



1. ISRAEL.—Israel'en iñoizko epai bat jazonen ari da, iñoizkoa: alde batera, 6.000.000 ildako juduek, eta bestera, il orreen gizon eraillea, Eichmann. Nok errazoa? Israel'go epai-maiak eztaki zelako erantzuna ebaki. Epai-mai orrek ezin daitala Eichmann epaitu? "Ez gagoz epai-maia juzgatzen, —erantzun deutsoe Servatius bitartekoari—, erruduna juzgaten batu gara". Erruduna! Baleiteke Eichmann'ek Hitler'en agindu nagusiak bearrez betetea, baleiteke guk be garai aretan bardin jokaturtea, baiña Jaungoikoaren legea bear eta garai guztien gañetik egon dago. Hitler'enak ala Jaungoikoarenak ziran ildako juduek? Ba, Jaungoikoarenak izatekotan, Israel'go epai-maia noren zai dago Eichmann-auzia betiko azalduteko? A! Baiña... Israel'go epai-maiak eztau Jaungoikorik ezagututen, eztau Jaungoikoaren bearrrik, eta eztaki, gizajoak, zelan azaldu auzia, eztaki nora jo. Negargarria! Jainkobako legeak 6.000.000'en eraillea ezin ezelan bere kastigatu, ezin. Orrenbeste uts dauke...!

2. ZINEA TA JAUNGOIKOA.—Zinean bakarrrik, alemaniako familiak erlegioko gauzetan beste diru emon dabe; frantzesak, 13 bidar geiago; belgak, 40 bidar geiago; eta italianoak, 78 bidar geiago.

3. GAGARIN.—Gagarin'ek zeruak jo ditu. Gizakume guztion izenean, ruso abiadore orrek, aprillaren 12'an, zeru-aizeak irabazi ditu: ordu bat izan yako naiko munduari jira-bira osoa emoteko "Vostok" koetean. Ederto ibilli ei da. Urte askotan, Gagarin! Jaungoikoa ezta asarratuko, gizonak zeru-

-aizeak menperatuten asi diralako. Bein da barriz agiri da Jaungoikoak mundua, eta bere misterioak, gizonaren eskuetan itzi dabezala, gure zoriona bein da barriz lotuteko. Baiña, bildur gara. Gero ta obeago ezagututen ditugu bai munduko misterioak eta mirariak; gero ta gatz gitxiago dau munduak gizonantzat; baiña orrek erreza dirudi. Norberaren barrua ta barrukoa ezagututeak baiña askozaz errezagoa iruditen yat munduko misterioak agertutea, eta norberaren barrua konponduteak baiña askozaz atsegingarriagoa dirudi kanpoko gauzak zuzenduten ibilteak. Bildur gara, bildur. Zeruak ukutuarren, oraindiño gizonak umeak gara, bape gizonadubakoak eta bape gure izate sakona obeagotubakoak. Sa-azaoa, ba, gizon-umeen eskuetan daga. Umeak ez dakie suaren indar gaiztoa.

4. CONGO.—Atzo Congo, gaur Argelia, biar Tanganika, eta etzi Angola... eta azkenean Afrika dana. Orrelan, konturatu barik. Afrika eskuetatik joan yaku. Nora! Itaun zorrotza ta nekegarria. Alperrik egin dau deadar Eleizak, alperrik itzartu gari "zuriok" berandu. Afrika ba-doa... eta gogana ez ba-letor, sikeran!

PELLO-MARI.

7'garren orritik dator

rala dantzarako domeka arratsaldetan. Baiña gure Eleiza Amak beste leku zikiñagoe-tatik jentea ostutearren egiten dau ori dantza zatarragoak aaztu eragitegaitik.

Gaur dantzea itzelean zabaldu da mundu guztian eta ezelan be ezin dogu gure errietatik kendu. Baiña ez gara izango kapar dantzea olgeta garbi bideetara ekarteko. pekatutik urrunduteko?

Neska-mutil gaztea!, ez aaztu: zuretzat dantzea ondamendi ta pekatu bide bat bada, derrigor itxi bear dozu "joku" ori; edo ez daukozu parkaziorik, pekatuan zagoz.

Yon ZABALGO